

Camínus 'Finis Terrae'

CaMinus

Oviedotik Fisterrara

2025eko ekainaren 11tik 20ra



CaMinus irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta hiru pertsonak osatzen dute, zeinetatik bik muskulu-distrofia izeneko gaixotasun arraro bat duten. Beste erronka bat prestatzen ari da elkarte hori, munduan gaixotasun minoritarioak pairatzen dituzten 70 milioi pertsonak ikusarazteko. **Vital Fundazioa** beti dute lagun bere ekimenetan, eta munduaren amaierako itsasargiraino iristea izango da hurrengo helmuga. **CaMinus Finis Terrae** izena eman diote proiektuari.

Informazioa

Iaz Erromara joan eta Frantzisko aita santuak harrera egin ondoren, 2025erako CaMinusen proiektua ekainaren 10ean abiatuko da Arabako hiriburutik, Oviedora errepidez iristeko. Behin hara iritsita, ekainaren 11n ekingo diote lehenengo etapari gurpildun aulkietan, **427 kilometro** baino gehiago egiteko Finisterrera iritsi arte (ekainaren 20an). **10 egunetan** zehar, Santiagoko jatorrizko bidetik ibiliko dira, Mellideraino. Han, Frantziako bidearekin

egingo dute bat, eta Santiago de Compostelarako iritsiko dira. Hirugarren aldiz iritsiko dira Obradoiro plazara erromesaldian, baina oraingoan “munduaren amaierarako” jarraituko dute.

Ibilbidea

Etapak (ekainak 11-20)

1. etapa	Oviedo – Salas	47,3 km
2. etapa	Salas - Colinas de Arriba	42,2 km
3. etapa	Colinas de Arriba - Grandas de Salime	42,6 km
4. etapa	Grandas de Salime - O. Cadavo	49,5 km
5. etapa	O. Cadavo – Ferreira	56 km
6. etapa	Ferreira – Salceda	46 km
7. etapa	Salceda – Ventosa	37,2 km
8. etapa	Ventosa – Olveiroa	44,4 km
9. etapa	Olveiroa – Muxia	31,1 km
10. etapa	Muxia – Fisterra	31 km

Fundación Vital Fundazioa

Kordoi Etxea, Aiztogile 24, Vitoria-Gasteiz

945 776 858

info@fundacionvital.eus